



# GAUTENA

26 Zk.

Abendua 2004

## ABIAN DIRÁ ETXEBIZITZA ETA EGUNEKO ZENTRO BERRIAREN LANAK: KUTXA FUNDAZIOAK BABES ERABAKIGARRIA EMAN DU

Oso pozik gaude jakinarazteaz berehalakoan hasiko direla Miramon II eremuan (erietxeetan) etxebizitza bat eta Berion eguneko zentro bat eraikitzeko lanak.

Azken urteotan jardun gara proiektu horietan lanean, eta gauzatu egingo dirá azkenean; usté dugu 2006ko lehen hilabeteetarako egon litezkeela abian.

Etxebizitza hamalau pertsonarentzat diseinatu da, eta zazpi pertsonarentzako bi ataletan banatuta egongo da; halako euskarri baten beharra duten familien beharrei erantzungo die, itxaron zerrendan baitaude hainbat. Dakizuenez, Foru Aldundiari dagokio zerbitzu horretan parte hartuko duten pertsonen izenak zehaztea. Diseinua egitekogaraian, urteakjoan, urteak etorri beste hainbat zerbitzutan izan dugun esperientziak baliatu gara, eta usté ona dugu garatutako proposamenaren eragingarritasunean eta berotasunean; halaber, usté dugu erabiltzaileek eta familiek bizi kalitate hobea lortzeko balioko duela.

Berioko eguneko zentro berriri dagokionez, Ategorrietako eguneko zentroaren ordezkia izango da hasiera batean, eta 24 pertsona hartuko ditu bi solairuko eraikin praktikoa horrek. Eguneko zentro moderno batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak izango ditu, eta autismoaren esparruko arazoak dituzten pertsonen beharrei erantzungo die.

Proiektu horiei heltzea ahalbidetu duten erakunde publikoak eta pribatuak nabarmendu nahiko genituzke. Publikoei dago-

kienez, erabakigarria izan da Donostiako Udalaren babesa -bi lursailak utzi ditu-, baila Gipuzkoako Foru Aldundiarena ere -inbertsioa egiten lagundu du, eta leku berriak babesten lagunduko du-. Nabarmenezkoa da, halaber, ONCE Fundazioak eguneko zentroaren proiektua abian jartzeko eman duen laguntza.

Nolanahi ere, babesik handiena Kutxa Fundazioaren Gizar-te Ekintzak eman du oraingoan, eguneko zentrorako 300.000 euroko ekarpena hitzartu baitu, eta 870.000 eurokoa etxebizitzarako.

Elkarteko kide diren familien izenean, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu proiektu horiek gauzatzea ahalbidetu duten erakunde guztiei.

**Ramón Barinaga**  
Zuzendaria


## DONOSTIAKO SAN IGNACIO IKASTETXEAREN 75. URTEURRENA

Donostiako San Ignacio ikastetxeak 75. urteurrena bete berri du. Ohar honen bidez, zoriondu eta egiten diguten harrera ona eskertu nahi diegu. Ikastetxearen hezkuntza proiektuaren parte sentitzen gara, ikasgeletan eta antolatzen dituzten ekitaldietan (eskola jaialdietan, Batxilergoko ikasleen agurrean eta abarreak) parte hartzen dugulako.

Hezkuntza aro guztietan izan gara urte hauetan guztietan, hau da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan. Langile eta ikasle guztiek oso harrera ona egin digute, eta ikasleak, zehazki, boluntario lanetan jardun dirá; oso esperientzia ona izan da.

Ikastetxeak asmatu egin du sortu diren beharrei egokitzen, eta erraztasun oro eman digu ikastetxearen parte izaten jarraitzeko. Horri esker, ikasleek Batxilergoko eskoletan parte hartzeko aukera izan dute, jangelako lanetan jardutekoa, ikastetxeko idazkaritzarako jarduerak egitekoa... Hartara, praktikotasuna eman diote euren lanari, eta baliagarri sentitu dirá.

Agur bero bat **Arantza eta Loles**. Gelako irakasleak



# ABIAN DA FAMILIENTZAKO BABESERAKO ZERBITZUA

Denbora luzea generaman familiek eta profesionalak GAUTENA elkartearen historian egin dituzten eskari nagusietako bat gauzatu nahian: Familientzako Babes Zerbitzua izatea, erreferentzia puntua izango dena, familiek minusbalotasuna duen pertsona baten bizitzan sortzen diren eragoeren erantzuna ez dutenean.

Ezbairik gabe, finantzazioa izan zen eragozpenik handiena asmo zahar hau gauzatzeko baina, arazoa konpondu ez dugun arren, aparteko ahalegina egitea erabaki dugu.

Hainbat alor jorratuko dugu Zerbitzuaren bidez:

- Harrera eta orientazio alorra
- Informazio eta trebakuntza alorra
- Elkar babesteko alorra
- Familiek atsedean izateko alorra
- Aisialdi alorra
- Boluntarioen alorra

Jarduera ugari abian dago jadanik. Are gehiago, zerbitzu berria den arren, Elkartek denbora luzez egin ditu halako jarduerak; ez gara hutsetik hasi. Hiru jarduera berri abiatu nahi ditugu laster:

- Informazio agiri bat argitaratzea, arreta ematen diegunek jasotzeko eskubidea duten laguntza guztien ingurukoa.
- Elkar babesteko talde bat sortzea, seme-alabari autismoa diagnostikatu berri dioten familiek eta «beteranoagoek» esperientziak truka ditzaten.
- Intereseko gaietako buruzko informazio hitzaldiak.

Gogo handia dugu zerbitzu hau zuena bihurtzeko, familiak izan zaitezten protagonista, eta behartzat dituzuen jarduerak egin ditzagun. Lagundu nahi duzuenok edo eskariak egin nahi dituzuenok jar zaitezte harremanetan Jimmy Brosarekin telefono (943215344) edo posta elektronikoa bidez ([apoyofamilias@gautena.org](mailto:apoyofamilias@gautena.org)).

**Jimmy Brosa**

Famili Laguntzarako Arduraduna



## GAUTENA.NET

Gautena.net webgunearen lehenengo fasea amaitzean den honetan, tresna horretaz gozatzen hasi gara. Ezbairik gabe, oso baliagarria gertatuko zaie profesionalari hasiera batean, baita familiei ere etorkizunean. Fase honi ekitea usté baino gogorragoa eta garestiagoa izan da, eta zuetako askok (ikasgela egonkorretara jotzen duzuen ikasleok, batez ere) jasan behar izan dituzuen aldaketak izan ditu, hala nola, Babeserako Programa Indibidualen atzerapena (argitaratzea, ez egitea). Gaur egun, 39 ordenagailu daude sarera konektatuta, eta ugaritu egingo ditugu pixkana-pixkana.

Amaitu zen 2004ko udako kanpaina, eta poztasun maila oso handia izan zen parte hartzaileen, familien, begiraleen... artean. Hauexek dirá programa bakoitzaren kopuruak:

	<u>Udaleku Integratua</u>	<u>Udaleku irekiak</u>	<u>Abuztuko udalekua</u>	<u>Guztira</u>
<b>Parte hartzaileak</b>	<b>19</b>	<b>55</b>	<b>103</b>	<b>177</b>
<b>Begiraleak</b>	<b>13</b>	<b>27</b>	<b>63</b>	<b>103</b>
<b>Tokiak</b>	Zarautz, Orontze, Hondarribia, Barria, Lurraska, Turtzioz, La Arboleda, Kanpezu	Donostia, Urnietza, Arrásate, Elgoibar	Doneztebe, Lekaroz, Zudaire, Lizarra	

Eskerrak eman nahi dizkiegu begiraleei, beraiek ahalbidetzen dutelako gauzak guztiok nahi dugun bezain ondo ibil daitezten.

## ARGITALPENAK

Mark Haddon idazlearen «The curious incident of the dog in the night time» eleberria (gaztelaniaz, «El curioso incidente del perro a medianoche») irakurtzea gomendatu nahi dugu. Protagonista Asperger sindromea duen haurra da, eta txakur bat aurkituko du hilik bizilagunaren lorategian. Gertatu dena argitzeko ikerketa azalduko digu.

## HITZALDI ZIKLOA

Urtero bezala, «Autismoari buruzko hitzaldi zikloa» egin zen urrian. Honako hauek izan ziren hitzaldiak:

- Slater-Walker ezkontideek «Asperger sindromea duen pertsona batekin bizitzea» hitzaldia eman zuten.
- Piona Scott doktoarek «Autismoaren inguruko egungo ikerkuntza» hartu zuen mintzagai.
- Joaquín Fuentes doktoarek amaitu zuen zikloa, eta «Autismoaren esparruko arazoek berrikuntza» jorratu zuen.

100 bat lagun izan ziren hitzaldi bakoitzean, eta poztasun maila oso handia izan zen. Nabarmentzekoa izan zen zikloari ekin zion hitzaldia, hain zuzen ere, Slater-Walker ezkontideek eman zutena.

## JOSTAILUAREN KANPAINA

Egun hauetan, gure etxeak opariz eta jostailuz betetzen dirá eta horrek suposatzen du ez dakigula ondo zer egin jostailu zaharrekin. Zuei laguntzeko intentzior (guri laguntzeko ere), egoera onean dauden jostailuak eta beraiekin zer egin ez dakizuela, guri ematea proposatzen dizuegu. Guk jostailu horiek aisialdiko ekintza desberdinak egiteko erabiliko genituzke. Jostailu horiek puzzleak, lotok,... edota bizikletak, patinak, patineteak,... izan daitezke. Ayetera bidaltzen dizkiguzue edo bestela Jimmyri deitu (943215344).

## KOMUNIKAZIO TALDEA

Laneko talde bat sortu nahi dugu, talde honen zeregina Elkarteko komunikazioarekin lotura izango zen; beste gauzen artean aldizkari hau egiteko, web orria egin eta mantentzeko, eta arlo honetako beste ekintzetarako. Talde honetan elkarteko profesionalak eta familiarak parte hartuko dute. Interesa duzuenek Jimmyri deitu.